



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2026ko bigarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren osagaiak	6
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak	12
Eranskina – Indizeak	18
Eranskina – Metodologia	22
Fitxa Teknikoa	25

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA


- eszeptizismoa finkatu egin da EAEko familien artean
- baina Europako familien artean ezkortasuna handiagoa da



1 eszeptizismoa finkatu egin da EAEko familien artean

Bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizea (-9) aurreko bi hiruhilekoetan erregistratutakoekin ia berdina izan da (-9 eta -8, hurrenez hurren, 2025eko laugarren hiruhilekoan eta 2026ko lehenengoan). Hiru hiruhileko hauetan, familien konfiantzak izandako galera (-8,5 puntu) sendotu egin da 2026ko lehen seiuhilekoan eta, ondorioz, 2024an izandako baliotik (-5) aldendu egin da, baina 2023koaren antzekoa (-8) izan da (ordu hartan, Ukrainako gerrak energiaren prezioetan eta inflazioan izandako inpaktuak eragin handia izan zuen).

Urteko bigarren hiruhilekoan mesfidantza geopolitikoa areagotu duen beste faktore bat gehitu da (Iraneko gerra); haren eraginak (bereziki Ormuzeko itsasarteko zirkulazioarekin lotuta) eta gatazka konpontzeko epeak jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren etorkizuneko igurikimenak baldintzatu dituzte. Horrez gain, kontuan hartu behar da gizartean garrantzi handia duten arazoen eragina (hala nola etxebizitzarena) eta barne-politikaren sinesgarritasunaren narriadura (epaiketa-prozesu ugari); izan ere, bi faktore horiek ere eszeptizismoa areagotzen dute.




2 baina Europako familien artean ezkortasuna handiagoa da

2026ko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien kasuan, konfiantza-indizea ia balio berberetan (-1 puntu) mantendu da. Aldiz, beherakada handiagoa izan da Estatuko familietan (-4 puntu), EB-27koetan (-5 puntu) eta Frantziakoetan (-5 puntu); eta are nabarmenagoa da Alemaniako (-7 puntu), Danimarkako (-6 puntu) eta Herbehereetako (-9 puntu) familietako datuekin alderatuta.

2026ko lehen eta bigarren hiruhilekoen artean izandako bilakaerak erakusten du Estatuko (-6) eta EAEko familiak (-9) eszeptizismo-egoeran daudela; aldiz, Danimarkako (-14), EB-27ko (-19), Frantziako (-21), Alemaniako (-19) eta Herbehereetako (-23) familiak argi eta garbi ezkorrak dira, eta, gainera, 2020ko emaitzarik txarrenetara hurbiltzen ari dira.

Familiak gaindituta daude gatazkek eta ziurgabetasun geopolitikoak, barne-mailako zailtasun politikoek eta berrarmatzeko eskakizunek (defentsa) gizarte-politiketan murrizketa ekarriko dutela uste izanda, besteak beste. Faktore horiek guztiek bultzatu dute ezkortasuna.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziazko herrialdeak¹



1. 2025eko hirugarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Uztaila-abuztua batezbestekoa


EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGIAK

- ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko ezkortasuna sendotu egin da
- enpleguarekin lotutako igurikimenak ia positiboak dira
- beren etxeko ekonomiaren bilakaerari dagokionez eszeptikoak dira
- eta urrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak dira
- familien artean konfiantza da nagusi, aurrezteko gaitasunean eta enpleguan oinarrituta

3 | ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko ezkortasuna sendotu egin da

EAEko familiek ekonomia orokorraren bilakaerari buruz dituzten igurikimenak argi eta garbi ezkorrak dira (-26), eta galera-joeran murgilduta jarraitzen dute; izan ere, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zertxobait gehiago okertu dira (-2 puntu). Horrela, indize partzial horrek 13 puntu galdu ditu 2024ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Hain zuzen ere, urte hartan lortu zuen Ukrainako gerraren eraginetik eta horrek energia-prezioetan eta inflazioan izandako ondorioetatik suspertzea.


Konfiantzaren galera-joera hori honako datu honek eragin du: EAEko familien % 54k uste dute egoera ekonomiko orokorrak okerrera egingo duela; aldiz, % 35ek egoerak berdin jarraituko duela uste du, eta % 11k hobetu egingo dela. 2025eko lehen hiruhilekotik aurrera, familien gehiengoak ekonomia orokorra okertu egingo dela aurrez ikusi zuen, baina ez da halakorik gertatu. Hain zuzen ere, azken bost hiruhilekoetan, EAEko eta Espainiako BPGa¹ modu iraunkorrean hazi da, % 2tik eta % 2,6tik gora, hurrenez hurren. Azken batean, datuek Euskadiren eta Espainiaren erresilientzia berretsi dute, nahasmen handiko testuinguruan (albisteak), eta horixe izan daiteke igurikimenak okertu izanaren faktore nagusia.



4 | enpleguarekin lotutako igurikimenak ia positiboak dira

Urteko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien lan-merkatuaren bilakaerari buruzko igurikimenak baikortasunetik gertu geratu dira (-2). Hala ere, nolabaiteko okertzea antzematen da; izan ere, azken hiru hiruhilekoetako emaitzak (-1, batez beste) zertxobait okerragoak dira 2024ko IV. hiruhilekoaren eta 2025eko III. hiruhilekoaren artean erregistratutako balio positiboak baino (+4, batez beste).


Dena den, azpimarratzekoa da EAEko familien artean lan-merkatuaren bilakaerari buruzko iritzi positiboa nagusitu dela (ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko igurikimenak, berriz, negatiboak izan dira). Balorazio hori bat dator EAEko lan-merkatuaren bi erreferentzia nagusiekin (2026ko maiatza): afiliazioa inoizko mailarik altuenean dago (1.042.680 afiliazio daude; hau da, duela urtebete baino 13.531 kotizatzailer gehiago), eta erregistratutako langabeziak beherantz jarraitzen du (103.733 pertsona, 926 gutxiago); gainera, azken 17 urteotan izandako daturik baxuena da (2009ko urtariletik, orduan 110.093 pertsona baitzeuden langabezia). Era berea, ordea, familien artean nolabaiteko zuhurtzia ere ikusi da, enpleguari buruzko igurikimenetan okertze arina antzematen baita, nahiz eta erreferentziazko datuen bilakaerak ez duen joera hori babesten.



5 | beren etxeko ekonomiaren bilakaerari dagokionez eszeptikoak dira

Familiako ekonomiaren bilakaerari buruzko igurikimenak, batez ere, finantza-kaudimenaren pertzepzioan oinarritzen dira; hau da, diru-sarreraren fluxuaren eta gastatzeko gaitasunaren arteko emaitzan (prezioak) eta, ondorioz, aurrezteko ahalmenean. EAEko familien konfiantza-indizea, beren familiako ekonomiaren bilakaerari dagokionez (-11) ia aldaketarik gabe mantendu da azken hiru hiruhilekoetan (-11, batez beste). Horrek esan nahi du emaitza 2024ko lehen hiruhilekoan eta 2025eko lehen hiruhilekoan izandakoa (-5 batez beste) baino zertxobait okerragoa dela.

Hala ere, familien kontsumoa % 2,8 handitu zen 2025ean (Eustat), eta 2026an % 2,1 haziko dela aurrez ikusten da (Eusko Jaurlaritzak egindako aurreikuspenen arabera). Datu horiek bat datoz txikizkako merkataritzaren¹ dinamismoarekin, adibidez, sektore horrek bere indarrari eutsi baitio (+% 3,5 2025ean, eta +% 3,3 2026ko lehen hiruhilekoan). Hau da, zuhurtzia erakusten duten arren, EAEko familien artean, kontsumo-joera beren familiako ekonomiarako aurrez ikusi duten egoerarena baino dinamikoagoa da.




6 | eta urrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak dira

Konfiantza aztertzen duten adierazleen artean, EAEko familien aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenen indizea da oraindik ere balio positibotan (+4) mantendu den bakarra, eta, gainera, hobetu egin da (+2 puntu). Horrela, 2024an eta 2025ean lortutako emaitza positiboak sendotu dira (+2 eta +3, urteko batezbestekoan).

Emaitza horiek bat datoz familiek egin dutenaren eta etorkizunean egitea espero dutenaren arteko koherentzia eta zuhurtziarekin. Izan ere, familien % 75ek adierazi dute azken 10 hiruhilekoetan aurreztu egin duela; bestalde, ikuspegi zuhurragoarekin bada ere, gutxienez erdiak aurrez ikusi du datozen hamabi hilabeteetan aurrezten jarraituko duela.

Alde horretatik, nahiz eta ekonomia orokorraren bilakaerarekin lotutako indizeak okerrera egin duen eta familiako ekonomiaren bilakaerari buruzko eszeptizismoa agertu duten, aurrezteko igurikimen handia gailendu da, eta horrek agerian uzten du EAEko familien ekonomia eta finantza arloko egoera kaudimenduna dela (funtsezko zati bat), nahiz eta prezioen hazkundeak “itzala” ere eragin duen.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



7 | familien artean konfiantza da nagusi, aurrezteko gaitasunean eta enpleguan oinarrituta

EAEko familien konfiantza eszeptizismoan finkatuta (-9, -1 puntu) dago oraindik ere, eta honako datu hauek nabarmendu behar dira:

- Irango gerrak sortutako ziurgabetasuna gorabehera, ez da aldaketarik: lau indize partzialen kasuan, ia balio bera mantendu da lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta aurreko emaitzak sendotu dira.
- Konfiantza ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko igurikimen negatiboak kaltetu dute. Neurri batean, esan daiteke igurikimen horiek deskonektatuta daudela (negatiboak baitira, -26) hazkunde ekonomikoaren eta enpleguaren bilakaerarekiko (azken horien datuak nabarmen positiboak baitira).
- Langabeziari eta aurrezkiari buruzko igurikimen hobeei orekatu dute egoera: EAEko familiak ia baikorrak dira langabeziaren bilakaerari dagokionez (-2), eta aurrezteko gaitasuna berretsi dute (+4). Bi adierazle horiek dira konfiantzaren emaitzarik onenaren oinarriak.
- Hala ere, konfiantza galtzen ari dira; izan ere, hiru elementuren seihiilekoko balantzea (-25, -10,5 eta -1,5; hurrenez hurren, ekonomia orokorraren, etxeko ekonomiaren eta langabeziaren bilakaerari dagokienez) duela urtebetekoa baino zertxobait okerragoa da (-20, -8 eta +5ekoa izan zen orduan). Salbuespen bakarra aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimena da (+3, bi seihiilekoetan). Ondorioz, 2026ko lehen seihiilekoan, familien konfiantza-maila (-8,5) duela urtebetekoa baino zertxobait okerragoa (-5) izan da.


Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2024	2025	IIH-25	IIIH-25	IVH-25	IH-26	IIH-26	Aldea	
Familien konfiantza	-4	-6	-6	-6	-9	-8	-9	-1	▶
Ekonomia orokorra	-15	-22	-21	-22	-25	-24	-26	-2	▶
Etxeko ekonomia	-5	-9	-9	-9	-11	-10	-11	-1	▶
Langabeziaren bilakaera	2	3	4	2	0	-1	-2	-1	▶
Aurrezteko gaitasuna	2	3	4	4	1	2	4	+2	▶

↔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioen bilakaeraren inguruko igurikimenak okertu egin dira
- erosketa-unearen inguruko balorazioa negatiboa izan da eta ez da aldaketarik sumatu
- erosketa handien gaineko igurikimenak positiboak dira
- etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoa sendotuta dago
- prezioen gorakada, kontsumo-baldintzak eta inbertsioa




8 prezioen bilakaeraren inguruko igurikimenak okertu egin dira

Etxeek prezioen bilakaerari buruz familien igurikimenak biltzen dituen indizeak sekulako gorabeherak izan ditu azken sei urteotan (-21, -41, -48, -6, +4 eta -18; 2020tik 2025era bitarteko urteko batezbestekoetan). Gainera, zenbat eta handiagoa izan prezioen hazkunde aurreratua², orduan eta negatiboagoa izan da indizea.

2026ko lehen hiruhilekoko (-19) eta bigarren hiruhilekoko (-28) emaitzek agerian utzi dute familiek prezioen gorakadaren eragina nabaritu dutela (EAEko KPI orokorrak % 3,4 eta % 3,2 egin zuen gora 2026ko martxoan eta apirilean, hurrenez hurren). Gainera, prezioen gorakada horrek oraindik ez du lortu normaltasunera³ itzultzea (hau da, % 2tik beherako hazkunde-mailara), eta, gainera, baliteke interes-tasen⁴ igoera ere gertatzea.

Prezioen bilakaerari buruz EAEko familiek adierazitako igurikimenek okerrera egin dute, eta zaila izango dute hobetu eta ezkortasunetik ateratzea. Izan ere, prezioen igoeraren eragin orokorrak baldintzatzen ditu igurikimen horiek (igoeren metaketagatik eta igoera horien eragina jasan duten produktu eta zerbitzuen multzoagatik).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsoneen %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

9 | erosketa-unearen inguruko balorazioa negatiboa izan da eta ez da aldaketarik sumatu

Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?


EAEko familiek erosketa handiak egiteko egungo unearen inguruko balorazio negatiboari (-21) eutsi diote, eta aurreko hiruhilekoan izandako ia balio berbera (-20) izan du. Hala, 2024an eta 2025ean erregistratutako en antzeko balioetan mantendu dira (-19 eta -18, urteko batezbestekoan).

Horrela, beste hiruhileko batez, hamar etxetatik seik (% 63) balorazio neutroa egiten dute erosketak egiteko uneari dagokionez; hamarretik hiruk (% 29) uste dute une txarra dela, eta hamarretik batek (% 8) uste du une ona dela.

Eroste unearen balorazioarekiko axolagabetasun hori "beharrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketa horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago.

Eroste unearen balioztapena¹

(pertsoneen %a)



¹ Azken 12 hilabeteetako dagokionez


10 | erosketa handien gaineko igurikimenak positiboak dira

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

Erosketa unearekiko balorazioaren indizearen balorazioa diru-bolumen handiko erosketa horiek egiteko asmoarekin osatu da. Horrela, 2026ko bigarren hiruhilekoan ez da aldaketarik izan igurikimen horietan (+1), eta, beraz, indizeak balio positiboetan jarraitzen du.

Ildo horretan, handitu egin da erosketak zertxobait edo askoz handiagoak izango direla uste duten familien multzoa (%26,8; ehuneko +0,7 puntu), erosketen kopurua berdina izango dela uste dutenen taldeak izandako beherakadari esker (% 51,5; ehuneko -0,9 puntu). Izan ere, gutxitu egingo direla uste dutenen taldeak ez du aldaketarik izan (% 21,7; ehuneko +0,2 puntu).


— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxeko erosketak datozen 12 hilabeteetan¹ —
(pertsoneen %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.

11 etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoa sendotuta dago

Familien % 1,4k uste du urtean zehar etxebizitza erosiko duela (segurtasunez). Beste era batera esanda, ratio hori sendotu egin da. 2026ko lehen hiruhilekoan, EAEn 6.748 etxebizitza-saleroketa¹ egin dira (-% 0,2), eta 2016tik izandako hiruhilekoko hirugarren erregistro onena izan da.



Ibilgailua erosteko asmoa duten familien ehunekoa (% 5,6) % 5eko ehunekoaren inguruan oso egonkor mantendu da. Urteko datu metatuari (urtarrila-apirila) dagokionez, 9.252 ibilgailu berri² saldu dira EAEn (+% 4,2, 2025eko urtarrila-apirileko datuekin alderatuta). Datu horiek hobekuntza-joera erakusten dute, baina oraindik ez dira 2018ko mailetara iristen (13.823, urtarrila-apirila).



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

12 | prezioen gorakada, kontsumo-baldintzak eta inbertsioa

Urteko bigarren hiruhilekoko emaitzek aurreko hiruhilekoetan EAEko familiek adierazitako joerak islatu dituzte; beraz, ez dute aldaketarik eragin azken bi urteotako igurikimenen eredian, eta...

- Prezioen gorakada aurreikusten da: EAEko familien kasuan, okertu egin dira (-9) prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak, eta benetan ezkorrak dira (-28). Emaitza horrek adierazten du prezioen igoera apirilera arte izandakoa baino handiagoa izango dela aurreikusten dutela (KPI orokorra +% 3,2koa izan zen urte arteko tasan Espainian eta EAEn).

Ondorengo hauen hautemateak eragindako emaitza da (efektu psikologikoa): batetik, kostuen igoera kontsumitzaileari azkar helarazten zaiola (eta ez hainbeste kontrako noranzkoan); eta, bestetik, eguneroko produktuen prezioen igoerak duen garrantzia, ez baitira modu berean hautematen prezioak jaisten direnean, eskaintzak aplikatzen direnean edo zerbitzuei dagozkienetan.

- Erosteke unearen balorazioak (-21) negatiboa izaten jarraitzen du. Aldiz, erosketak egiteari buruzko igurikimen-indizea positiboa da (1).
- Etxebizitza eta ibilgailua erosteko asmoaren datua antzeko mailatan (familien % 1,4k eta % 5,6k adierazi dute erosketa egiteko asmoa dutela) mantendu da. Baieztatu egin da dinamismoa etxebizitzaren salerosketan (6.748 eragiketa lehen hiruhilekoan; -% 0,2), eta ibilgailu berrien salmenta handitu egin da (+% 4,2; 9.252 ibilgailu, urtarrila-apirileko datu metatuan) EAEn.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2024	2025	II H-25	III H-25	IV H-25	I H-26	II H-26	Aldea
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	4	-18	-18	-18	-23	-19	-28	-9
Erosteke unearen balorazioa	-19	-18	-23	-13	-20	-20	-21	-1
Erosketak egiteko igurikimenak	-1	1	0	2	0	1	1	0

⇔ (±2 puntuko aldea)




ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea

euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2024	2025	II H-25	III H-25	IV H-25	I H-26	II H-26	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-4	-6	-6	-6	-9	-8	-9	▶
• Estado*	-2	-2	-2	-2	-2	-2	-6	▼
• EB*	-13	-13	-15	-15	-14	-12	-19	▼
○ Frantzia*	-14	-16	-17	-18	-16	-15	-21	▼
○ Alemania*	-11	-10	-10	-10	-11	-10	-18	▼
○ Danimarka*	-5	-13	-14	-13	-13	-8	-14	▼
○ Herbehereak*	-11	-15	-18	-14	-10	-12	-23	▼
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-15	-22	-21	-22	-25	-24	-26	▶
• Etxeko ekonomia	-5	-9	-9	-9	-11	-10	-11	▶
• Langabezia	2	3	4	2	0	-1	-2	▶
• Aurrezkia	2	3	4	4	1	2	4	▼
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	4	-18	-18	-18	-23	-19	-28	▼
• Erosteke unearren balioztapena	-19	-18	-23	-13	-20	-20	-21	▶
• Erosketak egiteko igurikimena	-1	1	0	2	0	1	1	▶
Erosketa handiak. EAE**								
• Etxebizitza	0,5	0,9	0,9	0,9	1,1	1,3	1,4	▶
• Autoa	5,5	5,1	4,7	5,6	5,1	5,1	5,6	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* II. hiruhilekoko datuak apirila-maiatzara batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

	2023	2024	2025	III H-25	IV H-25	I H-26	II H-26	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-9	-4	-6	-6	-9	-8	-9	▶
Adin-taldeak								
• 25 eta 39 urte bitartean	-10	-9	-10	-7	-9	-12	-13	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-9	-3	-6	-1	-11	-9	-7	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	0	-5	-4	-11	-9	-12	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-12	-2	-4	-17	-2	-2	-4	▶
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	-7	-4	-7	-4	-9	-9	-10	▶
• Langabea	-23	-17	-9	-2	-14	-11	-10	▶
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-9	0	-5	-11	-9	-5	-7	▶
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-20	-16	-12	-12	-9	-22	-23	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-9	-5	-8	-6	-14	-7	-9	▶
• 2.800 €-tik gorakoa	-1	3	-2	-3	-5	-4	-3	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	II H – 25	III H – 25	IV H – 25	I H – 26 _b	II H – 26 _b	(azkena)
BPG	2,2	2,3	2,4	2,2	--	I. hiruhilekoa
Familien kontsumoa	2,8	2,9	2,6	2,7	--	I. hiruhilekoa
Afiliazioa	0,9	-1,1	1,8	-0,6	1,0	apirila-maiatza
Erregistratutako langabezia	-3,5	2,0	0,1	0,2	-3,4	apirila-maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,2	1,6	0,7	0,6	--	I. hiruhilekoa
Etxebizitzaren salerosketa	-5,8	6,2	-7,9	8,2	--	martxoa
Ibilgailuen matrikulazioa	27,7	-9,3	2,6	-27,4	20,2	apirila-maiatza

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzaren salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonak duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobeagorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2026ko maiatzaren 11tik 22ra (2026ko II. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm